



Itunpeko irakaskuntzako langileen lan-sarrietan murrizketak

STEE-EILAS-ek salatzen du Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak joan den ekainaren 11ean hartu zuen erabakia, 2010. urteko Euskadiko Erkide Autonomiako Aurrekontuak aldatzeko Lege Proposamena abian jartzearena, hain zuzen ere. Lege proposamen horrek Madrilen Zapaterok ezarri zituen murrizketa-neurriak bideratu nahi ditu EAEn. Zehazkiago, administrazioaren zerbitzuan dauden langile publiko guztien (funtzionario nahiz lan-legepekoak) lan-sarrietan murrizketak ezarri nahi ditu. Zerbait berri dakar, halere. Xedapen gehigarri baten bidez itunpeko ikastetxeen ekonomia-moduluetan ere gauzatuko omen dute murrizketa, administrazioakoak ez diren enpresetan ere (itunpeko ikastetxean, hain zuzen ere) langileek izan dezaten soldataren jaitziera berbera.

Legea onartuko balitz Eusko Jaurlaritzak deuseztatu egingo luke irakaskuntza pribatuaren negoziazio kolektiboa, sinatuta eta indarrean dagoen hitzarmen batean lan-sarien murrizketa eraginez. Horrek galka egiten du Hezkuntza Sailak erabiltzen duen ohiko argudioarekin, beti esan baitu negoziazio kolektibotik kanpo gelditzen dela beti, bertan adosten dena onartuz. Hau esaten du duela 15 urte hasi eta urtez urte indarra galtzen doan homologazio prozesuarekin duen erantzukizuna gogoratzen diogunean.

Bai Zapaterok eta bai Lopezek defizit publikoaren gutxitzea langileriaren lepotik eta laguntza sozialetan murrizketak ezarriz bideratu nahi dute. 2010erako EAEn burututako aurrekontuek, jada, hezkuntza sistemako diru partidetara murrizketa latzak (%30 ingurukoak) ekarri zituztela gogoratu behar da (adibide gisa ikastetxe publikoetako langileria murrizketak), eta itundutako irakaskuntzan bereziki (heziketa berezia, euskalduntzea, LH...). Ondorioz, alde batetik, ikasleria izango da krisiaren pairatzailea, arreta eskasagoa izango duelako; eta bestetik euskal hezkuntza sisteman dihardugun langileriak, gure lan baldintzak okerrera egin dutelako.

STEE-EILASek ez du onartzen murrizketa hau eta hemendik aurrera emango diren pausoak aztertuko ditu inongo neurririk baztertu gabe. Beste aldetik, patronalek mahaiaren bilera deitu dute, seguruenez, murrizketa sektorean nola gauzatu bideratu nahian.